

GEHIGARRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIKO HARREMANEN JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILAREN BIDEZ ETA EUDEL-EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIEN ELKARTEAREN ARTEKO ESPARRU-AKORDIOA LUZATZEKOA, GIZARTEARENTZAT LAN EGITEKO ZIGORRAK BETETZEKO

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

BATZARTUTA

Alde batetik, María Jesús Carmen San José López andrea, Justizia eta Giza Eskubideen sailburua, bat etorri Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) eta lehendakariaren ekainaren 24ko 34/2024 Dekretuarekin (Justizia eta Giza Eskubideen sailburua izendatzeko), Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak (2024ko abenduaren 19ko EHAA, 246. zk.) esleitzen dizkion ahalmenak baliatuz, eta hitzarmena egiteko baimena ematen duen Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez egintza honetarako ahaldunduta.

Eta, bestetik, Esther Apraiz Fernández la Peña, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko presidentea, 2023ko irailaren 19ko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera, elkarte horren estatutuen 21. artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bi alderdiek lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko behar besteko gaitasuna eta legitimazioa aitortzen diote elkarri, eta, horrenbestez, honako hau

ADIERAZI DUTE

LEHENENGOA. 2022ko otsailaren 3an, esparru-akordio bat sinatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Euskadiko Udalen Elkartearen artean, gizartearentzat lan egiteko zigorra betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez (egungo Justizia eta Giza Eskubideen Saila, lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Akordio hori 2026ko otsailaren 2an amaituko da.

BIGARRENA. Hitzarmenaren xedea da toki-eremuan gizartearentzako lanak egiteko plazen eskaintza sustatzea eta indartzea, banakako lankidetzak-hitzarmenak sinatuz.

HIRUGARRENA. Esparru-akordioaren hirugarren klausulan ezartzen da akordio horrek lau urteko indarraldia izango duela, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Halaber, hitzarmena amaitu aurretik, alderdiek berariaz eta idatziz adostu ahal izango dute beste lau urtez luzatzea.

LAUGARRENA. Azaldutakoaren arabera, bildutakoek, parte hartzen duten egoeran, esparru-akordioaren luzapena formalizatzea erabaki dute, honako klausula honen arabera:

KLAUSULA

BAKARRA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren bidez eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUEDEL) gizartearentzat lan egiteko zigorrek betetzeko sinatutako esparru-akordioa 4 urtez luzatzea, 2026ko otsailaren 3tik 2030eko otsailaren 2ra, lankidetzak-hitzarmen individualizatuak sinatuz, erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta baldintzetan.

**EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA
ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUA**

**EUEDEL – EUSKADIKO UDALEN
ELKARTEKO LEHENDAKARIA**

María Jesús Carmen San José López

Esther Apraiz Fernández la Peña

ERANSKINA

KOMUNITATEAREN ALDEKO LAN ZIGORRAK BETETZEARI BURUZKO HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILAREN ETA XXXXXXXXXXXXX(e)ko UDALA/MANKOMUNITATEA/...REN ARTEAN

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

HONAKO HAUEK BATZARTURIK

Alde batetik, María Jesús Carmen San José López, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren eta Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuaren izendapenari buruzko Lehendakariaren ekainaren 24ko 34/2024 Dekretuaren indarrez, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak (2024ko abenduaren 19ko EHAA, 246. zk.) esleitutako ahalmenak erabiliz, eta egintza hau egiteko baimena ematen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiz.

Eta, bestetik, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaun/anderea XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX(e)ko (alkatea / Mankomunitateko presidentea, etab.), herri-erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz. Bi alderdiek beren karguen arabera esku hartzen dute eta, adierazten dutenez, legezko gaitasun nahikoa daukate hitzarmen hau sinatzeko eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

Lehenengoa.- Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren arabera, komunitatearentzako lanak, eskubideez gabetzeko zigorrak betetzeko dira, baita ordezeko neurriak ere. Hau da, horien bidez, zigortutakoak onura publikoko jardueretan lankidetzazko ekintzak burutu ditzake, horiengatik berari ezer ordaindu gabe eta, betiere, bere baimenarekin. Horrela, zigorra askatasunean betetzeko aukera du eta,



hartara, ez dira hautsi behar zigortuaren bizitza familiar, laboral eta soziala. Gainera, elkartasuna, erantzukizuna eta guztion ongizatea bezalako balioak sustatzen ditugu aldi berean.

Bigarrena.- Komunitatearentzako lanak egiteko erregulazioa Zigor Kodearen 39., 40. eta 49. artikuluetan eta ekainaren 17ko 840/2011 Errege Dekretuan jasota dago. Horretan ezarrita daude honako alderdi hauei buruzko zehaztapenak: komunitatearen mesedetan egin beharreko lanetan oinarritutako zigorrak noiz eta nola bete eta espetxean etenik gabe noiz egon; segurtasun arloko neurriak; askatasuna kentzea dakarten zigorrak betetzeko prozesua bertan behera uztea; eta zigorrak ordeztzeko modua. Arauketa horretan, zigor hori betearazteko zehaztapenak espetxera igortzen dira eta Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko Administrazioek eskaini behar dituzte jarduerak. Horretarako, Hitzarmenak egin ahal izango dituzte haien artean edo onura publikoko jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuekin, eta hilero bidali beharko diote Espetxe Administrazioari kokatuta dauden lurraldean erabilgarri dauden lanpostuen zerrenda.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio espetxeen eta gizarteratzearen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko eskumen eskusiboa, zigor eta espetxe arloko legeria orokorrarekin bat etorrita, bai eta espetxe arloko Estatuko legeria betearaztea ere (Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10-14 eta 12 artikulua). Eskumen horiei dagozkien bitartekoak eta zerbitzuak aurten eskualdatu dira, Transferentzien Bitariko Batzordeak 2021eko maiatzaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, eta 2021eko ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretuan jaso ondoren, BOEn 2021eko uztailaren 7an argitaratua. Eskualdaketa egiteko data 2021eko urriaren 1a bada ere, Autonomia Erkidegoak bete izan ditu komunitatearen aldeko lanak kudeatzeko eginkizunak 2011z geroztik, 2011n Barne Ministerioarekin sinatu zen lankidetzahitzarmenaren esparruaren barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolamenduaren barruan, Justizia eta Giza Eskubide Sailari dagokio, Justizia Zuzendaritzaren bitartez, zigorrak, segurtasun-neurriak, erregimen irekia, baldintzapeko askatasuna eta tratamendu- eta asmakuntza-programa espezifikoak betearaztea, kudeatzea, koordinatzea eta horien jarraipena egitea. Horretarako, beharrezko administrazio-ebazpenak hartuko ditu, barneratuak behatzeari, sailkatzeari, destinoari, baimenei eta tratamenduari dagokienez,



bai eta espetxe-legeriak Justizia Sailburuordetzari ez dagozkion zuzendaritza-zentroari esleitzen dion beste edozein ere, eta, nolana ere, ohiz kanpoko espetxe-baimenak emango ditu ohiko lan-ordutegitik kanpo ebatzi beharreko presako arrazoiatarako. Halaber, erkidegoan askatasuna kentzen ez duten zigor-arloko betearazpen-neurriak bultzatu eta ezarriko ditu, azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuaren 12. artikuluko j) eta k) letretan xedatutakoaren arabera 326/2024 Dekretua, egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Laugarrena.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezartzen duenez, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte hainbat eremu materialetan, eta horien artean daude komunitatearen aldeko lanak gauzatzeko eskakizunak bete ditzaketen jarduerak. Halaber, apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua Tokiko eta Autonomia Erkidegoaren Administrazioen arteko borondatezko lankidetzaren aurreikusitako guztion intereseko gaitan, sinatuko diren administrazio-hitzarmenen bidez.

Bosgarrena.- Bi alderdiek uste dute guztion interesekoa dela espetxetik kanpo zigorrak eta neurriak betetzeko aukerak sustatzea, komunitatearentzako lanak egiteko udal lanpostuak sustatuta eta bultzatuta eta, horretarako, lehengo egoera dakarren ikuspegi komunitarioa erabiltzen du eragindako kaltearen ordainean, aipatutako balioak txertatuta: elkartasuna, erantzukizuna eta guztion onura.

Azaldutakoagatik, bi aldeek hitzarmen hau sinatu dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren, Justizia Zuzendaritzaren bidez, eta xxxxxxxxxxxx (e)ko Udalaren/Mankomunitatearen arteko lankidetzaren ezartzea, gizartearentzat lan egiteko zigorrak benetan betetzeko, zigortuek beren eskumen-eremuan onura publikoko zenbait jardura eskainiz.



BIGARRENA.- EUSKO JAURLARITZAREN KONPROMISOAK

1.- Justizia eta Giza Eskubideen Sailak bere gain hartuko du gizartearentzat lan egindako egunengatik zigortutakoen lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren kontingentziak estaltzeko betebeharra.

Hori guztia honako manu hauetan xedatutakoaren arabera: Espetxe-tailerretan lan egiten duten zigortuen lan-harreman berezia arautzen duen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretua; komunitatearentzako lanak egiteko zigorra dutenen Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretua; eta Gizarte Segurantzaren babesa arautzen duen ekainaren 17ko 840/2011 Errege Dekretuaren 11. artikulua. Azken honetan honako atal hauek ditugu: komunitatearen mesedetan egin beharreko lanetan oinarritutako zigorrak betearaztea eta espetxean etenik gabe egotea; segurtasun-arloko neurri jakin batzuk; askatasuna kentzea dakarten zigorrak betetzeko prozesua bertan behera uztea; eta zigorrak ordeztzeko modua.

2.- Era berean, zigorrak kudeatzeko zerbitzuaren bidez, berari dagokio zigorra kudeatzea, koordinatzea eta jarraipena egitea, Udaleko/Mankomunitateko lan-aradunekin harremanetan jarrita.

HIRUGARRENA.- TOKIKO ERAKUNDEAREN KONPROMISOAK

1.- Udalak/Mankomunitateak konpromisoa hartu du komunitatearentzako lanak egitera zigortutakoei lanpostu-kopuru bat emateko, Zigor Kodearen 49. artikuluan eta ekainaren 17ko 840/2011 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan.

2.- Udalak/Mankomunitateak/.....ak konpromisoa hartu du behar diren ezagutzak emateko, jarduera egingo dutenek eraginkortasunez bete dezaten eta agindutako lana egiteko behar den materiala emateko.

3.- Komunitatearentzako lanak egiteko zigorra betetzeko lanpostuen eskaintza horrek ez die inolako kalterik eragingo tokiko erakundeko lanpostuei, oraingoei zein etorkizunekoei.

4.- Udalak/Mankomunitateak/.....ak Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Justizia Zuzendaritzari eman beharko dio lehenengo eranskina, adierazitako datuekin beteta.

LAUGARRENA.- LANPOSTUEN BANAKETA

1.- Udalak/Mankomunitateak/.....ak bigarren eranskina bidali beharko dio Justizia Zuzendaritzari, adierazitako lanpostuei buruzko datuekin beteta.

2.- Justizia Zuzendaritzaren mendeko zigorrak kudeatzeko zerbitzuak zigortutakoaren balorapena egingo du, jarduera egokiena zein den zehazte aldera. Hala, aukeran dauden lanpostuen berri emango diote zerbitzu honi, berariaz adierazita jardueraren eginkizuna eta haren ordutegia, hitzarmen honen bigarren eranskinaren arabera Udalak/Mankomunitateak/.....ak bidalitako lanpostu-katalogoarekin bat etorrira.

3.- Balorazioa egindakoan eta zigorrak kudeatzeko zerbitzuak garatu beharreko zeregina hautatutakoan, Udalari/Mankomunitateari/.....ari esleitutako jarduerak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den informazioa helaraziko dio.

BOSGARRENA.- LANALDIA ETA ORDUTEGIA

Lanaldiaren iraupena eta zigorrak kudeatzeko zerbitzua betetzeko epea zehazte aldera, ekainaren 17ko 840/2011 Errege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako malgutasun-printzipioari jarraitu beharko diote, ahal den neurrian, zigortutakoaren eguneroko jarduerak ezarritako zigorra betetzearekin bateragarri egiteko eta, betiere, ebazpen judizialekin bat etorrira.

SEIGARRENA.- LANEKO EDO ESTATUTUEN BIDEZKO ESKUBIDEAK

1.- Zigortuak egiten duen jarduera ez da ordainduko.

2.- Zigortuak hitzarmen honen ondorioz egiten duen jarduerak ez die laneko kontratu baten edo estatutuen bidezko edo funtzionario-kontratu baten ondoriozko betebeharririk sortuko hitzarmen hau sinatu duten alderdiei.

ZAZPIGARRENA.- ZIGORRAREN BETETZE MAILAREN JARRAIPENA.

1.- Zigorra bete bitartean, zigortuak agintaritza judizial eskudunetik eta zigorrak kudeatzeko zerbitzutik jasotako jarraibideak bete beharko ditu, bai eta lanean dabilen unitatean egin beharreko zereginei dagokienez ere.

2. Zigortuak egindako jardueraren eta hura betearazteko plana gauzatzean gertatutako gorabehera garrantzitsuen berri emango dio Udalak/ Mankomunitateak/.....ak zigorrak kudeatzeko zerbitzuari, azken honek agintaritza judizial eskudunari dagozkion argibideak eman diezazkion. Era berean, betearazteko plana amaituko denean

Udalak/Mankomunitateak/.....ak jakinarazi beharko dio zigorrak kudeatzeko zerbitzuari.

3.- Edonola ere, gorabehera hauen berri eman beharko da:

- a) Lanera ez joateak edo justifikaziorik gabeko lan-uzteak;
- b) Emandako lan-ekarpena eskatu daitekeen gutxienekoa baino nabarmen txikiagoa izatea;
- c) Jardueraren arduradunak luzatutako jarraibideen aurka behin eta berriz agertzea edo horiek ez betetzea,
- d) Erakutsitako jokabidearen ondorioz jardueraren arduradunak lanpostu horretan eduki nahi ez izatea.

ZORTZIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

1.- Udalak/Mankomunitateak/.....ak hartutako konpromisoaren arabera, Justizia Zuzendaritzak hitzarmen honen xedea betetzeari buruz eman dizkion datu eta informazio guztiak isilpean gordeko ditu. Zehazki, informazio konfidentzialtzat hartuko dira zigortuari buruzko datu guztiak, eta Udalak/Mankomunitateak/.....ak informazio hori erreserban eta isilpean gorde beharko du, eta ez dio inola ere jakinarazi, ez osorik ez zati batean, hitzarmen honen alderdia ez den ezein pertsona fisiko edo juridikori.

2.- Alderdiak prozeduren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitakoa betetzera behartuta daude eta, zehazki, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko nahiz zehapen penalak betearazteko erabilitako datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan xedatutakoa betetzera.

Ondorio horietarako, komunitatearen mesedetako lanen esparruan bildutako datu pertsonalen erabilera egokiaren erantzuleak hitzarmena sinatu duten erakundeak izango dira.

Erakundeetako batek beste alderdiak erabilitako datuak ikusteko aukera izango du erabileraren arduraduna den aldetik, baina soilik hitzarmenaren xede diren jarduerak fiskalizatzeko asmoz egiten duenean.



Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako edo jakinaraziko, salbu eta erabileraren arduradun legitimatuei edo beste administrazio publiko batzuei lagatzen zaizkienean, legez aurreikusitakoaren arabera.

3.- Hitzarmen honen xedea betetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalei dagokienez, Justizia Zuzendaritza eta Udala/Mankomunitatea/..... izango dira erabileraren erantzuleak. Erabili beharreko datuen helburua zigor penalak betearaztea izango da, Zigor Kodearen babespean, eta kategoria hauetan sailkatuko dira: zigortuaren izen-abizenak; NANA eta komunitatearen mesedetako jardueraren zigorrari dagokion lanaldikopurua.

4.- Alderdi sinatzaileek beharrezko antolakuntzako neurri teknikoak ezarri beharko dituzte, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea, edo baimenik gabe erabiltzeko zein ikusteko aukera eragozteko.

5.- Hitzarmena sinatu duen alderdietako bakoitzak ez du erantzukizunik izango baldin eta beste alderdiak aurrean zehaztutako betebeharrak betetzen ez baditu. Bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez duenak izango du haustura horretatik eratorritako erantzukizuna.

BEDERATZIGARRENA.- FINANTZAKETA

Hitzarmen honek ez die inolako kosturik eragingo sinatu duten alderdiei.

HAMARGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Jarraipen-batzorde bat ezarri da hitzarmen honen ondorioz hura interpretatzeari eta betetzeari buruz sortu litezkeen arazoak konpontzeko xedez. Batzorde hori Justizia Zuzendaritzako eta Udalaren/ Mankomunitatearen/.....aren bina ordezkari osatuko dute. Alderdiek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, eta Justizia Zuzendaritzari dagokio idazkari-lanak egingo dituen izendatzea. Horrek hitza izango du, baina botorik ez.

HAMAIKAGARRENA.- ALDAKETA

Hitzarmena aldatu ahal izango da, alderdiek aho batez hala adosten badute.

HAMABIGARRENA.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

1.- Hitzarmen hau urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluan aurreikusitako hitzarmenen araubide juridikoaren mende dago eta administrazio-izaera dauka.

2.- Hitzarmenaren ondorioei, interpretazioari, aldaketari edo amaierari buruz alderdien artean sortu litezkeen zalantzak edo eztabaidak Jarraipen Batzordean adiskidetzearen bidez adostu ezin badira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegi eskudunak ebatziko ditu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

HAMAHIRUGARRENA.- INDARRALDIA ETA INDARREAN JARTZEA

1.- Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2.- Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da. Hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen, Justizia eta Giza Eskubideen Sailak eta Udalak/Mankomunitateak/.....ak beste lau urtez luzatzea erabaki ahal izango dute, berariaz eta idatziz.

HAMALAU GARRENA.- AZKENTZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau deuseztatzeko arrazoiak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan ezarritakoak dira.

Hitzarmena amaitzean gauzatzen ari diren lanak erabat burutu arte luzatuko direla bermatuko dute alderdiek eta horiek amaitzeko epe luzaezina ezarriko dute.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, hitzarmen honen bi ale original sinatu dituzte, biak ere baliozkoak, goian adierazitako lekuan eta egunean.

M^a Jesús Carmen San José López

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

**Berdintasun, Justizia eta Gizarte
politiketako sailburua**

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Alkatea / Lehendakaria



1. ERANSKINA

Udalaren / Mankomunitatearen /ren datuak

PERSONA DE CONTACTO					
IZENA ETAKARGUA					
CARGO KARGUA					
TELEFONO TELEFONOA		MÓVIL MUGIKORRA		FAX FAXA	
E-MAIL E-MAILA					
DIRECCIÓN DE LA ENTIDAD ERAKUNDEAREN HELBIDEA					
TERRITORIO HISTÓRICO LURRALDE HISTORIKOA					
LOCALIDAD HERRIA				C. POSTAL POSTAL KODEA	

2. ERANSKINA

Lanpostuen eskaintza

ANEXO DE PLAZAS	
PLAZEN ESKAINTZA	

DATOS DE LA PLAZA
PLAZAREN DATUAK

Tipo de actividad	
Jardunaldia	
Número de plazas	
Plaza kopurua.	

CARACTERISTICAS
EZAUGARRIAK

TIPO DE JORNADA (1)	Mañana		Tarde		Noche	
JARDUERA MOTA (1)	Goizez		Arratsaldez		Gauetz	
PERIODICIDAD	De lunes a		Fines de		Toda la semana	
ORDUTEGIAREN MAIZTASUNA	viernes		semana		Aste osokoa	
	Astelehenetik ostiralera		Asteburuetan			
HORARIO						
ORDUTEGIA						



ESTUDIOS (2) IKASKETAK (2)	Ninguno Inolako ikasketak		Diplomado Universitario equivalente	o
	Estudios Primarios Lehen mailako ikasketak		Licenciado Universitario equivalente Unibertsitateko lizentziaduna baliokidea	o edo
	Educación Secundaria o equivalente Bigarren Hezkuntza edo baliokidea		Idiomas Hizkuntzak	
OBSERVACIONES Y DATOS COMPLEMENTARIOS OHARRAK ETA DATU OSAGARRIAK				

DATOS DE CONTACTO DE LA PLAZA

PLAZAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
DATUAK

NOMBRE Y CARGO DEL RESPONSABLE / ARDURADUNAREN IZENA ETAKARGUA

TELEFONO		MOVIL		FAX	
TELEFONOA		MUGIKORRA		FAX	



E-MAIL /E-MAILA	
DATOS DE UBICACIÓN / KOKAPENAREN DATUAK	
Territorio Histórico Lurralde Historikoa	
LOCALIDAD Herria	
CODIGO POSTAL POSTAL KODEA	

(1) Lanaldi bat, plaza bat. Goizeko eta arratsaldeko jardunaldi batek bi eranskin sortuko ditu.

(2) Markatu eskatutako gutxieneko maila, edo bat ere ez, kualifikazio berezirik behar ez bada.